




GERO AXULAR

Agoteak

GERO AXULAR KULTUR TALDEA



Gero Axular Dantza Taldea

TALDEAREN HISTORIA LABUR BAT

2024ko ekainean [Gero Axularrek](#) 20 urte bete zituen euskal kultura sustatzen, zabaltzen eta iraunarazten.

Bi hamarkadatan zehar, Gero Axularrek aztarna ezabaezina utzi du dantza tradizionalarekiko maitasuna erakutsiz taldean ibilitako 600 gazte baino gehiagori. Gazte hauek, harrotasunez erakusten dute beren trebetasuna herriko festetan dantzatzuz, aktiboki parte hartzen dute erromerietan eta harro daude gure ospakizunetan jantzi tradizionalak janzteaz. Ondare kultural horri esker, gure belaunaldiek beste kultura batzuk ezagutu eta partekatu ahal izan dituzte, baita atzerrian euskal kultura atzerrian nola miresten den ikusteko gozamina izan dute.

Hori guztia posible izan da Geron antolatzen ditugun jardueri esker, euskal kultur ondare aberatsa sustatu, zaindu eta zabaltzeko helburu nagusiarekin. Hala ere, gure lana arlo kulturaletik haratago doa, zeharka lan egin baitugu gizarte solidarioago eta inklusiboago bat lortzen laguntzeko. Baztertutako kolektiboekin lankidetzan aritu gara, hirugarren adinekoentzako ekimenetan parte hartu dugu eta [Dravet sindromea](#) duten pertsonak ikustarazten lagundu dugu, gure emanaldi eta ikuskizunen bidez.

2025. urtera arte, GEROk 60 [jaialditan](#) parte hartu du, eta 350 emanaldi baino gehiago egin ditu atzerrian, Frantzia, Belgika, Italia, Portugalen, Alemanian, Hungarian, Polonian, Galesen, Eskozian, Serbian, Kroazian, Danimarkan, Eslovenian, Grezian... eta guztietan arrakasta handia izan du. Bereziki aipagarriak dira Llangollen-en (Gales) 2011ko jaialdian lortutako sariak: lehen saria dantza tradizionalako taldeen kategorian eta lehen saria, halaber, bakarkako dantzarien atalean ere.

Txetxeniako Groznyko jaialdian, 2016ko urrian, Kulturako ministerioaren saria jaso zuen. 2023an, Gero Axular, Taiyuaneke (Txina) nazioarteko lehen folklore jaialdian parte hartzeko hautatutako munduko bederatzi taldeetako bat izan zen.

Gero folklore tradizionalaren esparruan lan egiteaz gain, bere dantza ikuskizunengatik nabarmentzen den taldea da.



Gero Axular Dantza Taldea

IKUSKIZUNAK

[Ikuskizunak Juan Luis Unzurrunzagak](#) sortu eta koreografiatzen ditu, irakaskuntza-lana eta alderdi koreografikoa uztartuz. Koreografiak sortzeko doinu herrikoiak erabiltzeko estiloa galdu gabe, gaur egun eta Gero-n hasi zenetik, bere estiloak 90 minutuko ikuskizunak sortu zituen. Ikuskizun horiek eszenografia zaindua dute, ikusleari kontatzen den istorioan murgiltzen laguntzeko, ikuskizuna osatzen duten 20/24 koreografiaren sekuentzia etengabearen bidez. Guztira, 80 dantzarik eta 8-10 musikaririk hartzen dute parte. Ikuskizunen jatorrizko ideia, koreografia guztiak eta ikuskizunen zuzendaritza orokorra egiten ditu (dantza, argiztapena, eszenografia...).

20 urte baino gehiagotan zehar sortutako jantzi aberatsak erakusten dira ikuskizun honetan. Guztira, 54 modelo ezberdin ikuskizun hauetarako bereziki sortuak eta protagonista bihurtzen direnak. Bilduma hauek XVI. eta XX. mendeetan erabiltzen ziren jantzietan oinarrituta daude.

Sortutako ikuskizunak:

- Sasi Artean (2005-2006) euskarak jasan duen errepresioa irudikatzen du.
- Lamien Basoa (2007-2008) Lamien pertsonaia mitologikoei buruz hit egiten du.
- Talaia (2009-2010) Arrantzale herri baten historia
- Xereta (2011-2012) 1793an Lapurdiko Xereta bailaran gertatutako pasarte historikoa
- Argizaiola (2013-2014) istorioa XIX eta XX. mende artean kokatzen da, gerra eta istilu zibilak tartean
- [Itzal Galdua](#) (2015-2016) 1900. urtean, gerra Karlisten ondoren nafar askok Mauleko espartin lantegietara jo behar izan zuten lan bila.
- [Agorrila](#) (2017-2019) 1813an gertatu zen Donostiako txikizioa.
- [Higa](#) (2021-2023) XVII. mendearen hasieran, Donibane Lohizuneko emakumeek inkisizioaren jazarpenera izugarria jasan zuten.

Jantziekin egindako lan honek taldea ildo paralelo bat garatzera eramandu eta 2018an [#dotorejantzi](#) ekimena jarri zuen martxan jantzi tradizionalari eta honen erabilera egokiari balioa emateko asmoz jai tradizionaletan. Horren erakusgarri dira Donostian Santo Tomas egunean baserritar jantzien lehiaketan antolatu dituen 7 edizioak, **“Harrotasunez, ez harrokeriaz”**.



Agoteak

DATU HISTORIKOAK

Arauk Agoteek sufritu behar izan zituzten bazterketak oso gogorrak izan ziren, beraien artean ezkondu behar ziren herrikoekin nahasi gabe. Ezin zuten herrian bizi ez ibili eta etxeetan ezin zuten Baztango armarrie eduki, Arizkungo elizantoki ezberdinetan jartzen ziren burdinezko hesibatekin bereziak, ur bedeinkatuaren pilaezberdina zuten ere bai, mahi berean ere ezin ziren jarri.

1600 urte inguruan Pedro de Ursuak agoteak defendatu zituen Aragoiko eta Gaztelako gortetan, agoteak Baztango bailarako pertsona gisaaitortzea. Urte batzuk geroago agoteak Nuevo Baztan izeneko Madrileko herri batera eramateko saiakera egin zen.

1817 urtean Arizkun, Baztan eta Nafarroko biztanle guztion eskubideak berdinak zirela babesten zuen legea atera zen. Pixkanaka bazterkeri hauek alde batera utzi zituzten eta Bozateko jendeak eskubide berdinak zituen.

Orain dela urte batzuk Arizkunen prueba genetikoakegin zizkioten bozateko biztanleei agoteen jatorria argitu nahian.”

Juan Luis Unzurrunzaga



Agoteak

SINOPSISIA

Harresiz eta hesiz bereizitako haran zahar batean, iraganaren oihartzunak oraindik entzuten dira. Agotak, ahaztutako eta baztertutako herria, burdinaz bestalde bizitzera kondentatu zuten: izenik gabe, armarri gabe, ahotsik gabe.

Urteak geroago, beste gorputz batzuk —gazteak, sentikorrak, desberdinak— dantzatzen jarraitzen dute beste muga batzuek ezarritako pisuaren azpian: aurreiritzien, isekaren eta gizonkeria inposatuaren azpian.

Lan honek Agoten historia eta maskulinitatearen forma berriak uztartzen ditu, desberdina denaren beldurra nola irauten duen erakutsiz, aurpegi berriak jantzita. Mugimenduaren bidez, interpreteek bazterketaren herentzia eta askatasunaren aukera uztartu nahi dituzte —erruduntasunik gabe, burdinarik gabe.

“Burdinaren semeak” memoriaz, desberdintasunaz eta itxaropenaz diharduen ikuskizuna da: estigma indar bihurtzen duen erritu bat, eta lotsa harrotasun.

Juan Luis Unzurrunzaga



Agoteak

Gizarte irekiago, askatzaileago eta errespetutsuago baten aldeko aldarria da.

Memoriaz, desberdintasunaz eta itxaropenaz diharduen ikuskizuna da.

Bakoitzak nahi duen bidea aukeratzeko askatasuna aldarrikatzen du, baita gaur egungo gazteen balioa ere, nahiz eta gehienek presioa egin, dantza egitea aukeratu baitute.

[Aurkezpen bideoa](#)



Agoteak



Ikuskizunaren iraupena: 90 minutu

24 koreografia berriak, 90 dantzariak

Zuzeneko musika, 8 musikariak

Jantzitegia: 12 modelo ezberdin

Musika zuzendaritza:
ANDONI IPARRAGIRRE

Jantzigintza:
ANA MARTÍNEZ, GURUTZE TELLERIA

Argiztapena:
AITOR AZKUNA, JAVIER SAINZ DE MURIETA

Soinuztapena:
ROBERTO GONZÁLEZ

Zuzendaria, koreografoa eta jatorrizko ideia:
JUAN LUIS UNZURRUNZAGA



Gero Axular Dantza Taldea

HARREMANA

Gero Axular Kultur Taldea
info@geroaxular.eus
695 57 67 76

WEB

www.geroaxular.eus

SARE SOZIALAK

